

PROYDE-PROEGA
FUNDAZIOAREN
ESTATUTUAK

2017ko iraila

I. KAPITULUA

IZENA, IZAERA ETA HELBIDEA

1. artikulua - Izena

“PROYDE-PROEGA (Promoción y Desarrollo - Promozioa eta Garapena) Hirugarren Munduarekin” izenpean, 2001ean, Bilbo Barrutiko Kristau Eskoletako Anaien Institutuak, Ongintza-Sorospenerako Fundazio bat sortu eta eratu zuen lankidetzaren eta garapenerako. Fundazioa pribatua da, eta honako interes orokorren zerbitzuan egongo da: giza, herri, hezkuntza eta osasun interesen zerbitzuan besteak beste, garapenaren lankidetzaren eta boluntaritzaren promozioa ere lantzeaz gain, honako Estatutuetan adieraziko den bezala. Eusko Jaurlaritzaren babeslaritza pean geldituko da. Eta Euskal Herriko Fundazioen Legearen, beronek emandako Araudiaren eta bestelako erabakien arabera arautuko da; eta Estatutu hauetan adierazten den modura batik bat

2. artikulua - Nortasuna

Fundazioak berezko nortasun juridikoa dauka eta jarduteko gaitasun betea, Kode Zibilaren 35. artikuluan adierazita dagoen bezala. Hori dela eta, fundazioaren helburuak bete ahal izateko premiazkoak diren ekintza guztiak burutu ahal izango ditu, Ordenamendu Juridikoan ezarritakoaren arabera. Izaera iraunkorra izango du eta iraupen mugagabea.

3. artikulua - Helbidea

Fundazioaren helbidea Donostian kokaturik dago, Madalena Jauregiberri 2an.

Fundazioaren Patronatua helbidea aldatzeko baimenduta dago, holakotan helbide berriaren berri Fundazioen Erregistroari eman beharko dio.

Fundazioak ordezkariak eduki ahal izango ditu Autonomi Elkartearen eremuan edota bertatik kanpo, Fundazioaren Patronatuak hala erabakiz gero.

4. artikulua - Jarduera Eremua

Fundazioaren helburuak lortzeko egiten diren jarduerak batik bat Euskal Herriko Autonomi Elkartearen lurraldetan garatuko dira, baina onuradunak munduko edozein tokitan bizi daitezke.

II. KAPITULUA

FUNDAZIO XEDEAK, ETA FUNDAZIOAREN JARDUERAK ETA ONURADUNAK

5. artikulua - Xedeak

“PROEGA-PROYDE (Promoción y Desarrollo - Promozioa eta Garapena) Hirugarren Munduarekin” Fundazioak honako fundazio xedeak ditu:

- justizian eta solidaritatean, boluntariotzan eta garapenean hezteak,
- herrialde behartsuenen promozioa eta garapena,
- garapen, larrialdi eta giza egintzetako proiektuen bitarteko lankidetzak.

Hori lortzeko mota ezberdinetako ekintzak burutuko ditu:

1. Garapen sozioekonomikoa, begiraleen formazioa, gazte eta helduen alfabetatzea, pertsona prestatuak bidaltzea.
2. Helburu hauek lortzeko egiturak ezartzea.
3. Justizian eta garapenean hezteak, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eremuan.

Hori guztia bete ahal izateko, Fundazioak:

1. lankidetzan jardun dezake promozioa eta garapena helburu gisa dituzten beste zenbait erakunde autonomiko, estatal edo atzerrikoekin,
2. irabazi asmorik gabeko antzeko erakundeekin bat egin dezake, autonomikoak, estatalak nahiz atzerrikoak izan, Patronatuak onartutako erabakien arabera beti ere, kontuan hartuz Fundazio hau irabazi asmorik gabeko entitatea dela.

Aurreko txatalean aipatutako ekintzez gain, Fundazioak, bere xedeak bete ahal izateko:

- Edozein motako jarduera ekonomikoak gara ditzake, bere xedeak bete ahal izateko edota helburu hori lortzeko baliabideak eskuratzeko.
- Edozein motako eta edozein tituluren araberako ondasunak lortu eta ukan ahal izango ditu eta, halaber, edozein motako ekintzak eta kontratuak burutu.
- Legeen edo bere Estatutuen araberako edozein ekintza mota burutu ahal izango ditu.

6. artikulua - Onuradunak

Hirugarren Munduko lurraldeetako pertsonen promozioa eta garapena sustatzeko egingo diren kanpainetako eta jardueretako pertsonak eta erakundeak izango dira Fundazioaren onuradunak. Horretaz gain, onuradunak izango dira Hirugarren Munduan Fundazioaren helburuekin bat datozen proiektuak eta jarduerak bultzatzen dituzten mota guztietako Erakunde Zibil eta Erlijiosoak, pribatuak nahiz publikoak izan.

Urteko ekitaldi bakoitzaren hasieran, Patronatuak erabakiko du nortzuk izango diren jardueraren programazioko onuradunak, beti ere premiaren larritasuna eta onuradunen garapenari nola eman estaldura handiagoa eta iraunkorragoa kontuan hartuz.

7. artikulua - Jarduera Ekonomikoak.

Fundazioak jarduera ekonomikoetan jardun ahal izango du, baita beste erakundeetan esku hartu ere Fundazioaren xedeekin zerikusirik dutenean, baldin eta haiek mugatuta badute bazkideen erantzukizuna. Horrek guztiak eskatzen du Euskal Herriko Fundazioen Legeak eta beronen Araudiak ezartzen dutena betetzea.

III. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN HORNIDURA ETA ONDAREA

8. artikulua - Ondare Hornidurak

PROYDE-PROEGA Fundazioaren hasierako hornidura, fundazio gutunean horretarako jasotzen dena da, eta entitate fundatzaileak ezarritako ondasunez eta eskubideez osatuta dago.

Delako hornidura hori gehitu ahal izango da Fundazioak doan eskuratzen dituen edozein motako ondasun eta eskubideekin, baldin eta hornidura hori modu iraunkorrean gehitzeko asmoz bada.

9. artikulua - Fundazio Ondarea

Fundazio Ondarea osatzen dute Fundazio hornidurak eta, bertan sartu gabe, Fundazioak beregana ditzakeen balio ekonomikoko beste zenbait ondasunek.

10. artikulua - Fundazioaren alde egindako ekarpenak.

Fundazioak zertarako den zehaztu gabe diru-kopururen bat jasoko balu, Patronatuak erabakiko du fundazio horniduran sartuko den ala zuzenean fundazio xedeak betetzera eramango den.

11. artikulua - Fundazioaren Errenten erabilera.

Patronatuak fundazio xedearen betetzera zuzenduko ditu Fundazioaren baliabideak, Euskal Herriko Fundazio Legeak 12/1994 arautzen duenaren arabera.

IV. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN GOBERNUA

12. artikulua

Fundazioaren Gobernua, Administrazioa eta ordezkapena Patronatuari dagokio, bera baita Fundazioaren xedeak burutu ahal izateko ordezkatzeko ahalbideak dauzkan Organoa, Ordenamendu Juridikoan eta Estatutu hauetan adierazita dagoenaren arabera. Bera da Fundazioaren Ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko dituenak, beraiei etekin eta erabilgarritasun ahalik handiena emanez.

13. artikulua

Gutxienez bost bazkideek eta hamaikak gehienez osatuko dute Patronatua.

1. Kristau Eskoletako Anaien ARLEP Barrutiko Anai Ikuslaria izango da Patronatuaren Presidentea, eta bere zereginak bete ditzake pertsonalki edo, bere ordezkapena egiten duen pertsonak, Erakundearen legediaren arabera.
2. Gainontzeko Patronoak Kristau Eskoletako Anaien ARLEP Barrutiko Anai Ikuslariak izendatuko ditu, erakundetik kanpoko pertsonak aukera ditzakeelarik, Fundazioaren helburuekiko atxikimendua erakutsi dutenen artean.

Izendatutako Patronoei dagokienez, karguak lau urteko iraupena izango du, eta berriro aukeratuak izan daitezke, iraupen bereko agintaldi baterako edo gehiagorako.

14. artikulua

Patronatuak Presidenteorde bat izendatuko du patronoen artean. Hautaketa gehiengoaz egingo da, eta, berdinketarik balego, Presidentearen kalitatezko botoak erabakiko du.

Era berean izendatuko ditu Patronatuak Fundazioaren Idazkaria eta Diruzaina. Hauek ez dute halabeharrez Patronatuko kide izan beharrik, eta kasu horretan hitza bai baina botorik ez dute izango bileretan. Horrez gain, Patronatuari dagokio Ordezko Batzordeak izendatzea, eta arauen arabera erabakiko du hauek nola osatu eta zer-nolako funtzioak beteko dituzten.

15. artikulua

Presidenteari dagokio, Patronatuaren ordezkapen iraunkorra dela bide, eta, behar balitz, Presidenteordeari, Fundazioa ordezkatzeko edozein pertsona, agintari eta entitateen aurrean, publikoak nahiz pribatuak izan; Presidenteak egingo du Patronatuaren bileretarako deia, bera izango da buru, berak zuzenduko ditu debateak eta beteko ditu akordioak edo, behar balitz, betearaziko, xede horretarako eman behar diren dokumentuak emanez.

Presidenteordeari dagokio Presidenteordea ordezkatzeko bere funtziotan, ezinezkoa zaionean beroiek betetzea; eta burutzen lagunduko du Patronatuak hori erabakitzen duen bakoitzean.

Idazkariari dagokio Patronatuko bileren akta egitea eta hartutako akordioak bermatzea, Fundazioaren liburu, dokumentu edo aurretikoak bezalaxe.

Diruzainari dagokio Fundazioaren kontabilitatea eramatea eta liburuak zaintzea. Era berean egingo du aurreko urteko eta urteko diru-sarreraren eta gastuen presupuestoen likidazioa.

16. artikulua

Patronatua sei hilabeteetan behin bilduko da gutxienez, eta Presidenteak ontzat jotzen duen edo patronoen herenak eskatzen duen bakoitzean.

Edozein kasutan, urte-jarduera bakoitzeko lehen hiruhilekoan bilduko da, aurreko jarduerako kontuak eta ekintzen memoria baietsi eta Babeslaritzari eman behar zaizkion kontuak prestatzeko.

Bilerak baliodunak izango dira, gutxienez Patronoen gehiengoa bertaratzen denean.

17. artikulua

Akordioak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira, eta, berdinketa balego, Presidentearen kalitatezko botoak erabakiko du.

Bileran parte hartzen duen Patrono bakoitzak boto bat izango du. Patronoek pertsonalki egon behar dute Patronatuaren bileretan, eta ezingo dute inoiz ere inoren esku utzi beren ordezkapena.

18. artikulua

Patrono kargua doanekoa da, baina ez gastu-ekarlea. Beraz, karguak sortutako gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, justifikatuta badaude.

19. artikulua - Ahalmenak

Patronatuak Fundazioaren ondasunen eta ordezkapenaren kudeaketarako ahalmenik handienak izango ditu, Legeak edo Estatutu hauek ezarritako mugak besterik ez ditu izango. Beraz, Fundazioaren ondasunen, baloreen edo eskubideen gaineko agente eta administratze ekintzak burutu ahal izango ditu.

20. artikulua

Patronatuak, Fundazioaren izenean, kanpoko zenbait pertsonen nahiz Patronatuko kideen esku utz dezake zenbait jardueren burutzapena, funtzioen araberrako ordainketa eginez.

21. artikulua

Patronatuak Batzorde Aholkulari baten laguntza jaso dezake obren gaurkotze, eraginkortasun eta hedatzeari dagokion guztian, Fundazioaren helburuen arabera. Batzorde Aholkulari hau ezartzen bada, gutxienez urtean behin bilduko da, kudeaketaren eta emaitzen berri izan dezan, eta sortzen diren arazoei buruzko aholkua eskatu eta etorkizunerako planak eta proiektuak egiteko.

Patronatuari dagokio Batzorde Aholkulariko kideen izendapena eta aldaketa.

V. KAPITULUA

KUDEAKETA EKONOMIKOA

22. artikulua

Fundazioaren Patronatuak urtero egingo du inbentarioa, eta aurkeztuko ditu egoeraren balantzea eta emaitzen kontua. Bertan islatuta geldituko dira Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoera, abenduaren 31an itxia. Era berean idatziko du jarduera ekonomikoan zehar burututako Ekintzen Memoria bat, Fundazioaren xedea bete dela jakinarazi eta bermatzeko. Memoriak halaberrez jaso beharko ditu finantziario koadroa eta Zuzendaritzan edo Gobernu Organoan eta ondarean gertatu diren aldaketak. Aipaturiko dokumentu guztiak urteko lehen hiruhilekoan aurkeztu beharko zaizkio Babeslaritzari.

Era eta epe berean aurkeztuko zaio Babeslaritzari aurreko jarduerako gastuen eta sarrerren presupuestoaren likidazioa.

Fundazioak urtero prestatuko du hurrengo jarduerari dagokion gastuen eta sarrerren presupuestoa, Babeslaritzari urteko azken hiruhilekoan aurkeztuko zaiona, berauen Memoria esplikatzailearekin batera.

23. artikulua

Fundazioaren kontabilitatea Legeak eta xedapen osagarriek adierazten dutenari lotuko zaio, garatzen dituen ekintzen arabera.

Besteak beste, Fundazioak honako liburu hauek eramango ditu: Inbentarioen eta Balantzeen Liburua, eta Akta Liburua. Kontabilitatea diruzainak eramango du, eta berak gordeko ditu Fundazioaren liburuak.

VI. KAPITULUA

ALDATZE ETA IRAUNGITZEA

24. artikulua - Estatutuen aldatzea

Estatutuak aldatu ahal izateko, Patronatuaren adostasuna beharko da, karguan diharduten Patronoen botoen bi herenekin, edo Legeak jarritako baldintzen betetzearen arabera.

Edozein kasutan, Patronatuak hiru patronoez osatutako Ponentzia bat izendatuko du aldatze proiektua idatz dezan, hark emandako arauen arabera, eta berak erabakiko du proiektua bukatzeko epea.

Aldatze proiektua idatzita dagoenean, Patronatuak egingo duen lehenengo bilerako Gai Zerrendan jarriko du Presidenteak, baietsita gera dadin. Baietsiko ez balitz, Ponentziari itzuliko dio, berriro azter dezan.

Aldatze akordioak arrazoitua beharko du izan, eskrituraz formalizatu beharko da, babeslaritzaren oniritzia jaso eta Fundazioaren erregistroan idatzita gelditu beharko du.

25. artikulua - Bategitea

Patronatuak beste fundazio batekin edo beste batzuekin bategitea proposa dezake, fundazio xedea errespetatuz, eta horretarako debekurik ez balego. Bategiteko, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

26. artikulua - Iraungitzea

Fundazioa bertan behera geldituko da ezin baldin badu jarraitu xedeak betetzen, bai ondarea galdu duelako bai Legeetan adierazten diren beste zenbait motiboengatik, batik bat Eusko Jaurlaritzaren Fundazio Legean adierazten direnengatik. Iraungitzeko derrigorrezkoa izango da Patronatuaren adostasuna aurreko bi artikuluetan estatutuen aldatze eta bategiterako aipatzen ziren baldintza berberetan.

Entitateen bategite kasuan ezik, Fundazioaren iraungitzea adostu denean, likidazio prozesua hasiko da, Likidazio Batzorde batek egingo duena. Patronatuak izendatuko du Batzorde hau, eta Patronatuaren Presidenteak, Presidenteordeak eta Diruzainak osatuko dute. Batzorde horrek bere gain hartuko ditu gelditzen diren fondoak.

Hori gertatuko balitz, Fundazioaren likidaziotik ateratzen diren ondasunak eta eskubideak, Likidazio Batzordeak erabakitzen duen modura, Kristau Eskoletako Anaien ARLEP Barrutiari emango zaizkio, Fundazioak dituen antzeko xedeetarako erabiliak izan daitezten.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Estatutu hauetako atalen arabera **KRISTAU ESKOLETAKO ANAIEN ARLEP Barrutia** delako erakundeari dagokiona, erakunde hau iraungiko balitz, ordezkutzen edo bereganatzen duen eliz pertsonalitate juridikoak hartuko du bere gain, indarrean dagoen legedi kanonikoaren arabera.

Estatutu hauetan jasorik dira 2017ko ekainaren 12ko Patronatu Juntan onartutako aldaketak.